



A eredua

IRAKASLEEN HIZKUNTZA ESKAKIZUNAK

HE2 (C1 maila)

PROBA IDATZIA

- Proba honek lau ariketa ditu: Proba honek hiru ariketa ditu: 1) Irakurmena. 2) Idazlan luzea. 3) Idazlan laburra.
- Denbora: **3 ordu**.

1. IRAKURMENA

Gaitza eta kontragaitza

Gizakion mundualdia hain da laburra, ezen ume izateari erabat uzteko astirik ez baitigu ematen. Ofizialki bai, adin jakin batean ume izateari utzi egiten diogu ofizialki, eta bihurtzen gara lehenik gazte, gero heldu, geroago zahar. Izan, ordea, ume jaio eta ume hiltzen gara, neurri handi batean, funtsezko gauzei (...1...). Dugun adina dugula, ume jokatzen dugu beldurtzen garenean, ume (...2...) hartzen ditugu inor begira ez dugula uste dugunean. Eta pentsatu ere, umeek bezala pentsatzen dugu askotan.

Umeek bezala pentsatzea da, adibidez, honako hau pentsatzea: gauza bat txarra bada, haren kontrakoa ona da.

Barregarria behar luke baieztapen horrek, baina serio arraio (...3...) batek baino gehiagok hori esaten. Gauza bat txarra bada haren kontrakoak (...4...) on behar duela esateak, horrela esanda, logikoa dirudi. Adibide bat jartzea aski litzateke, ordea, uste ustela dela frogatzeko. (...5...), esaterako, hestekak libratu ezina alegia, txarra da. Baina hortik ez da ondorioztatzen, inola ere, beherakoa ona denik.

(...6...) dagozkien gaitzetatik bihotzari dagozkion gaitzetara egin dezagun orain. Bada gaitz zahar bat, giza bihotza aspaldidanik jo eta hondatzen duena, (...7...) egurra edo herdoilak burdina nola. "Godoten gaitza" deitzen diot nik gaitz horri: beti (...8...) esperoan egotean datza gaitz hori, ez dagoenaren aiduru bizitzean, etorriko omen den mirarizko zeraren baten zain egotean. Egotea, diot, euskarazko zentzuan: egonean egotea, (...9...) mirari hori gertatu arte deus ere egin gabe egotea. Gaitz horrek jota dagoen gaixoak, etorri beharreko miragarri horren etorreran (...10...) esperantza, uko egiten dio egoera apurka-apurka hobetzeko ahaleginak egiteari.

(...11...) ahalegindu daitekeentxoa egiten, etorriko den horrek den-dena kolpetik konponduko badu? Utikan, gauden (...12...), Egun Handia arte. "Godoten gaitza" deitzen diot, esan bezala, nik dakidala, Samuel Beckett idazle handiak azaldu baitu gaitz hori egokien, orain euskaraz ere (...13...) dugun obra ospetsuan: *Godoten esperoan*.

Becketten iritziz, bi kontuk definitzen dute pertsonen (...14...): jakiteko grinak eta hitz egiteko beharrak. Batetik, jendeak dena jakin nahi du, baina ezagutza (...15...) ezinezkoa da eta ezintasun horrek etsipena dakar. Bestetik, jendeak komunikatu nahi du, baina, Becketten iritziz, jendea (...16...) ere ez da gai.

Eta egoera hori islatzen du *Godoten esperoan* honek. Egoera absurdo baina (...17...) kokatzen ditu egileak liburuko bi bikoteak. Azken batean, Godoten zain egotea ezagutzen ez dugun leku horretara bide ez egiteko aitzakia besterik ez da.

Azken batean, arestian aipatutako egoera etsigarriaren aurreko bizitzaren (...18...) besterik ez da liburua. Denborak aurrera egiten du eta, guztia errepikatzen den arren, (...19...), ez da ezer gertatzen. Agertu behar ez duen norbaiten zain daude protagonistak, absurdoa dirudien baina errealtatearen isla hutsa den (...20...) zentzugabeen. (*Maidar Aristi, Gara 2001-06-16*)

Absurdoa irizten dio zenbaitek obra horri, baina hor ez dago absurdorik deus ere. (...21...) bizitza bera baino absurdoagorik.

Godoten gaitzaren kontrako gaitza, berriz, gaitz moderno edo, nahiago bada, postmoderno da. "Hamalaren gaitza" deitzen diot nik gaitz horri, eta "Hamalau", (...22...), gaitz horrek jota dagoenari. Hamalaren gaitzak jota dagoen gaixoaren sintoma nagusia honako hau da: urruti daudenekin harremanetan jartzeko grina gehiegizkoa azaltzen du, eta grina horrek (...23...) dio aldean gertu dituenekin harremanetan jartzea.

A eredua

Belarri biak walkmanaren aurikularrez estalita agertuko zaizu (...24...) hitz-ordura. Zurekin kalean paseatzen doala, hizketan arituko da etengabe: ez zurekin, sakelako telefonoz (...25...) norbaitekin baizik. Bere gelan sartu eta, ahal dela, handik ez ateratzen saiatuko da Hamal Lauren gaitzak jotako gaixoa. Bere gelan baitu bere unibertsoa, eta zentro (...26...) du unibertso horrek: ordenagailua.

Interneti esker, harreman (...27...) ditu Hamalauk Australiako lagun batekin. Siberian ere, (...28...), izango du kontakturen bat. Bazter guztietara iristen da. Nonahi ditu lagun birtualak. Deskuidatuz gero, zeharo aztoratuta izango da une honetan, (...29...) bere Hamalaukidea bizitzen ari den drama pertsonala dela eta. Bihotz zabala da, hori ez dago (...30...).

Gure Hamal Lauren alboko atean bizi den gaztea drama (...31...) bizitzen ari daiteke, ordea. Beheko solairuko aitona, petxuan mina sortu zaiola eta, sokorro eske ari daiteke, ordea. Gure Hamalauk ez ditu ez bata ikusiko ez (...32...) entzungo, beste mundu batean bizi baita, (...33...) mundu mundial globalizatu batean, ordenagailuan hasi eta ordenagailuan bukatzen den munduan. Harentzat baizik ez du (...34...), harentzat baizik ez du belarririk. Handik du odola eta arnasa. (...35...) bidez datorkio bizia, haur jaioberriari zilbor-hestetik nola.

Komunikabide berriei esker, (...36...) ditugu orain urrutiko intxaurrak. Eta nago, intxaur horiekin (...37...), ez ote zaigun atariko intxaurrondoa ihartzen ari, eta usteltzen.

Nahiago nuke nire ustea ere erdia ustel balitz.

Orain, komunikabide berriei esker, (...38...) leiho ditugu, munduari begira egoteko. Leiho kristaldunak, irekitzen ez diren horietakoak dira, ordea, guztiak. Begia bai, baina (...39...) kabitzen ez den horietakoak.

Etxeko atea, berriz, lehen ez bezala, zazpi giltzaz itxita daukagu. (...40...) ere.

Eta nire galdera hauxe da: orain ala lehen, noiz ote geunden munduari zabalduago? Orain ala lehen, noiz ote ginen zabalago?

Joxerra Gartzia, Itsasoan euri, 64. or.

A eredua

1.- a) zegozkiolarik b) dagokienez c) gaudelarik d) gagozkionean	2.- a) mimoak b) barreak c) jarrerak d) imintzioak	3.- a) datorkit b) darama c) dihardu d) dabil	4.- a) kontrajarrita b) beharbada c) aldamenean d) ezinbestean
5.- a) Litxarrerria b) Goragalea c) Idorreria d) Sabelkeria	6.- a) Gizakioi b) Hesteei c) Sabelari d) Beherakoei	7.- a) sitsak b) hezeak c) hondoak d) beroak	8.- a) zereginen b) zerbaiten c) nonbait d) luzaroan
9.- a) dena delako b) ezinbesteko c) urrutiko d) itzulerako	10.- a) egonik b) datzalarik c) jarririk d) oraturik	11.- a) Zertan b) Nolabait c) Gaurkoan d) Bete-betea	12.- a) egoerari b) gaudenean c) esperantzari d) ametsetan
13.- a) aztergai b) eskuratuta c) txukun d) irakurgai	14.- a) zeharbidea b) goragalea c) tragedia d) handinahia	15.- a) sasikoa b) denekoa c) mardula d) osoa	16.- a) horrelakoetan b) bestetarako c) benetako d) horretarako
17.- a) zoroan b) erdipurdi c) egiazkoan d) barregarrian	18.- a) isla b) egia c) kapitulua d) zoria	19.- a) egiazki b) dena den c) zorionez d) berriki	20.- a) bezpera b) ispilu c) norabide d) espero
21.- a) Ez behintzat b) Halabeharrez c) Edozelan ere d) Sarri askotan	22.- a) alabaina b) ordez c) dena dela d) orobat	23.- a) bideratzen b) galarazten c) laguntzen d) ezkututzen	24.- a) negarrez b) pentsakor c) halakoa d) bat-bateko
25.- a) hemengo b) bestaldeko c) grinatutako d) jabetutako	26.- a) biribila b) sasijakitun bat c) antzu bat d) jakin bat	27.- a) estimatuak b) estuak c) gazi-gezak d) maiteak	28.- a) oro har b) hain urrutitik c) larri ibili d) behintzat
29.- a) antipodetako b) aldameneko c) eskola-garaiko d) erbesteko	30.- a) zimelduta b) ukatzerik c) estutzerik d) alferkerian	31.- a) berria b) zatarra c) nagusia d) bera	32.- a) besterik b) bestekorik c) bestea d) bestela
33.- a) atzerriko b) urrutiko c) zuri-beltzezko d) bertoko	34.- a) begirik b) bizirik c) bururik d) araurik	35.- a) Ideia b) Grina c) Hari d) Soka	36.- a) altzoan behera b) merke-merke c) gozo-gozo d) esku-eskura
37.- a) aserik b) bizkorturik c) jolasturik d) zatituta	38.- a) hamalau b) nahi adina c) kristalezko d) nonahiko	39.- a) maratila b) ahoa c) sudurra d) arima	40.- a) Badaezpada b) Nolanahi c) Lagunarentzat d) Deskuiduan

A ereduia

30.....

40.....

50.....

60.....

4. IDAZLAN LABURRA

Idazlan honek 150 hitz izan behar ditu gutxienez.

Zer aldatuko zenuke auzoan? Hori galdetu dute udaletik. Prestatu erantzuna. **Hizpide hauek garatu behar dituzu:**

- Azaldu auzoaren egoera.
- Proposatu bizpahiru aldaketa.

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

10.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

20.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

30.....

ERANTZUN ZUZENAK**HE2: Irakurmena (Gaitza eta kontragaitza)**

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
B	C	C	D	C	B	A	B	A	C
11	12	13	14	15	16	17	18	19	20
A	B	D	C	D	D	C	A	A	D
21	22	23	24	25	26	27	28	29	30
A	D	B	C	B	D	B	C	A	B
31	32	33	34	35	36	37	38	39	40
D	C	B	A	C	D	A	B	D	A